

HAUR2DE:

GURASOEN EMOZIOAK, HAURREN ETORKIZUNAREN OINARRI.

2. CANVAS

2.1. BALIO PROPOSAMENA

Emakume eta gizon askok haurdunaldian ziurgabetasuna, beldurra eta informazio falta sentitzen dute. Gainera, **emozioak kudeatzeko** laguntza gutxi jasotzen dute, eta horrek eragin zuzena izan dezake bai beraien ongizatean bai haurraren garapenean ere. Gure enpresak "HAUR2de" umea itxaroten dauden gurasoei edo zaintzaileei laguntza emozionala eta informazio fidagarria eskaintzen die, modu pertsonalizatuan eta errazean eskuratzeko moduan.

ZERK BEREIZTEN GAITU:

- **Berritasuna:** Batez ere emakumeen emozioak erdigunean jartzen dira, orain arte landu izan den osasun fisikoaz gain, haurdunaldian ongizate mentalaren arretari behar duen garrantzia emango zaio.
- **Pertsonalizazioa:** Emakume bakoitzaren egoerara eta behar emozionaletara egokitutako **orientazioa** eskaintzen dugu.
- **Profesionaltasuna:** Psikologo, emagin eta gizarteratze integratzaileak osatutako talde aditua dugu.
- **Erabilerraztasuna:** Lineako plataformaren bidez (app edo webgune) 24/7 laguntza egongo da eskuragarri.

ZERGATIK ORDAINDUKO DU BEZEROAK GURE ZERBITZUA:

Segurtasuna, lasaitasuna eta konfiantza eskaintzen ditugu momentu berezi baina erronka handiko batean. Gure zerbitzuarekin bakardade sentimendu eta emozioak kudeatzeko tresnak jasotzen dituzte, beraien eta haurraren ongizatea hobetuz. Esan bezala, jende espezializatuaren laguntza izango dute uneoro.